

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

58/2026 Mozioa, ekainaren 11koa, landa-eremuko osasun-guardien antolamenduari buruzkoa

Arabako Batzar Nagusi hauetako Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Batzordeak, 2026ko ekainaren 11n egindako bileran, mozio hau onetsi zuen:

58/2026 Mozioa, ekainaren 11koa, landa-eremuko osasun-guardien antolamenduari buruzkoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatzen diote berehala atzera egin dezala landa-eremuko kontsultategietako guardia-sistemaren antolaketan egindako aldatketan, batez ere Añana, Gaubea, Lantaron eta Erriberabeitiko eremuetan (Haranak 1 eremua).

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari exijitu diezaiola landa-eremuko osasungintzako profesionalekin batera lan egin dezala Arabako landa-eremuko kontsultategien zerbitzuko antolaketa-modu egokia lantzeko. Horretan, kontuan hartu beharko ditu Arabako landa-eremuko beharrian espezifikoa eta, hala, kontsultategiak ixtea eta ordutegiak murriztea saihestuko da, eta bermatu landa-eremuko kontsultategi guztiek bere horretan segitzen dutela.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Eusko Jaurlaritzari exijitu diezaiola Arabako Lurralde Historikoko osasun-zerbitzuetarako baliabide humano eta material gehiago bidera ditzala, kalitatezko osasun-arreta bat berreskuratzeko xedez.

4. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatzen diote aurretiko komunikazio eta informazio garden eta etengabea berma diezaiela landa-eremuko osasun-zentron eta kontsultategien edozein antolaketa-aldaketak eragindako udalei eta administrazio batzarrei, bereziki Añanako ingurukoei (Haranak 1). Halaber, eskatzen da premiaz helarazi dadila informazio zehatza egutegi berriei buruz eta egutegi berri horiek inguru horretako biztanleentzako osasun-arretan izango duen eraginari buruz, eta kontuan izan ditzala eragindako tokiko entitateek egindako informazio-eskaerak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 11

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA